

ZAA

ZORROTZ MORROTZ

46. ZEBAILA 2017ko UZTAILA

IRAITZ ZULOAGA ETA IBAI GARCÍA

ZORROTZA FUTBOL ESKOLAKO ARDURADUNAK

GAZTETXEA. 13. URTEURRENA

Allianz 

Menfer Insurance Group S.L.

Geltoki bidea 1, behea
48013 Zorrotza

Tel. 946551773
Sakelakoa. 691218922

E-mail: valerio.merino@allianzmed.es

3 Volkswagen Polo eta 30 iPhone 7 zozketatzen ditugu

**Izena eman
kutxabankorain.eus
webgunean, gainditu
proposatutako erronkak
eta irabazi zozketetan
parte hartzeko aukerak.**

Sustapenaren oinarriak hemen:

www.kutxabankorain.eus.

Sustapenaren azken eguna:

2017ko abenduaren 31.

Zozketaren egunean adinez nagusiak eta Kutxabankeko kontu baten edo indarrean dagoen txartel baten titularrak direnentzat edo, horrelakorik ezean, zozketaren egunean Kutxabanken diru-sarrera bat helbideratuta dutenentzat.

Kutxabank, SA, Kale Nagusia, 30-32, 48009 Bilbo, IFK: A95653077. Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatuta. 5226 Tomoa, 0 Liburua, BI-58729 Orria, 1 Folioa, 1. Inskripzioa.



kutxabank
ORAIN



**...Imajinatzen duzu auzoa
merkataritzarik gabe?**

ESKAINTZARik ONENA ZORROTZatik IRTEN BARIK

**Berton
kontsumitu**



Hunkituta berriro ere

Berriro ere, eta zoritxarrez, Zorrotza hunkitu da Barinagako zaspigarraren zenbakian emandako zorigaitzoko gertakariagatik. Eraikin honetako sutean bost pertsonen bizitza galdu zuten. Auzo Elkarteak urte ugari daramatza "Landa" bezala ezagutzen den gunen honen egoera salatzen. Larritasunez itxaroten dugu arduradunek gunen honen arazoak behin betiko konpontzeko beharrezko neurriak hartu ditzaten.

Bitartean lanean jarraitzen dugu. FEVE-ren tren pasaguneen lurperaketa eta tren geltokia mantentzea, instituzio eta alderdi politikoen egutegietan sartzea lortu dugu. Beste aldetik, Alazne Lopez Etxebarriaren I. Omenaldi Kulturala partaidetza arrakastatsurekin ospatu dugu. Hemendik ekitaldiaren antolatzaileak eta ekitaldian parte hartutakoak zoriundu nahi ditugu. Aipatzekoa ere Bizkaiko Koraleen egunaren ospakizuna. Eguraldi euritsuak ilundu arren, auzorako ekitaldi garrantzitsua izan zen.

Bukatzeko, 30 urtez aldarrikatu ondoren, estalitako frontoia errealtate bat da.



HARPIDEDUN IZAN ZAITEZ!!

ZM zure e-postan jasotzeko, bidali mezu elektronikoa bat **zmorrotz@gmail.com** helbide elektronikora, gaiaren laukian "harpidetza" jarritz



Zorrotzako kultur aldzkaria
46. zenbakia. 2017ko uztaila

Argitaratzen du:

Zorrotzako Euskal Txokoa

AEK euskaltegia

Zalbidea, 7 behe

48013. Zorrotza. Bilbo

Emaila: **zmorrotz@gmail.com**

f facebook.com/ZorrotzMorrotz

t [@zorrotzmorrotz](https://twitter.com/zorrotzmorrotz)

Koordinazioa: Aitor Marín

Diseinua eta maketazioa:

amc diseinua

Erredakzioa:

- Ibai Barrios
- Aina García
- Igor Gutiérrez
- Haizea Olleta
- Aitor Marín
- Naroa Peña
- Iratze Pérez
- Zuriñe Vila
- Lorna Yáñez

Zuzenketak: Iñigo

Laguntzaileak:

- Karlos
- Rodríguez
- Manu Cobo
- Asier Urkiza

Inprimaketa: Arin Graf



Zorrotz Morrotz aldzkariak Bilboko udalaren dirulaguntza jasotzen du



BAR RUDI



MARADONA

CLARA CAMPOAMOR 2

2 BETAURREKO PROGRESIBO

195€ SOILIK ORDAINDUTA

*Graduaziori lotuta dago: zilindroko -2 eta eslerako +-4

C/ ESTRADA DE ABARO, 5 | 944 27 40 80

ibarretaluxury

OPTICA

MADNESS KAFETEGIA

Elena eta Javier

Zalbidea estazio, 5 - atzea

ZORROTZA

48013 BILBO

MADNESS

Tel. 94 441 62 75

Barinagako suteak tragedia bat eragin du, Landako egoera larria agerian utziz



Igor Gutiérrez

Maiatzaren 27ko goizaldean Zorrotza berr-i ilun batekin esnatu zen. Barinaga kaleko etxe bat suak hartu eta bizilagunak barnean harrapatu zituen. Ondorioak aski ezagunak dira: bikote gazte bat eta beraien seme eta alaba txikiak hilik suertatu ziren eta hainbat pertsona zauritu atera, bai erredurengatik bai ihes egitean hartutako kolpeengatik. Gertakariak berehala erakarri zuen komunikabideen arreta, tokikoengandik hasi eta estatu mailakoetara, eta hurrengo egunetan zehar gure auzoa hainbat irratsaio, telesail eta berripaperen hizpide izan zen. Ezbeharren gainetik – dudarik gabe, Zorrotzan inoiz gertatu den larrienetakoa - kaltetuen bizi-bal-dintzak izan ziren harridura handiena sortu zutenak, askorentzat sinesgaitzak hogeita batgarren mendeko Bilbo honetan.

Lehen orduetan, atsekabea nagusitu zen eta Auzo Elkarateak tragedia aurreikusten zela esatea hipokritatza jo zuen Bilboko alka-teak. Udalak etxebizitza horretan bizi ziren familiak lekualdatzeko tramiteak abian zituela argudiatu zuen baina horrek ez zituen auzo-kideak ase eta istripua Barinaga auzoarekiko



izandako urteetako utzikieriarekin erlazionatu zuten. Tirabirak tirabira, manifestazioa deitu zen hurrengo asteazkenerako eta egun ho-rretan bertan, goizez, Taldeen Koordinakun-deak prentsaurrekoa eskaini zuen; batetik, biktimekiko auzoaren elkartasuna adierazte-ko eta bestetik, zorigaitza gertatutako auzoa-ren egoera salatu eta udalari luze gabe esku har zezan eskatzeko. Arratsaldean, martxa isil eta jendetsuak parketik Barinagarainoko ibilbidea egin zuen, pankartan xingola beltza

eramanda. Biharamunean, Zazpi Landa ikas-
tetxean, bertoko ikasle ziren hildako bi haurrei
omenaldi hunkigarria egin zieten ikasle, ira-
kasle eta gurasoek. Gurasoak ere oso ezagu-
nak ziren, auzoan hazi eta hezi zirelako.

Azken egunotan, bi zauritu larrietatik bat zen-
du da eta kalteturik gehienek senitartekoen
etxeetan diraute, euren egoera konpondu
arte. Bitartean, Zorrotzak soluzio baten zain
jarraitzen du Landa auzoarentzat.

Zorrotzan ospatutako XXXIV. Bizkaiko Abesbatzen Egunaren arrakasta eta giro ona ilundu zituen euriak

Aitor Marín

51 abesbatzek eta 1000 pertsona baino gehia-
gok parte hartu zuten ekainaren 4an XXXIV.
Bizkaiko Abesbatzen Eguna ospatzeko an-
tolatutako kontzertu erraldoian. Aurten, egun
honen antolaketa, 25 urte beteko dituen Mikel
Deuna Abesbatzaren ardura izan da. Egun
arrakastatsua eta oso giro ona egon arren,
eguraldia ez zuten lagun izan, eta euriak age-
rian utzi zuen zein beharrezkoa zen frontoia-
ren estalkia (egun horretan bukatuta zegoen,
baina inauguratu gabe). Jardunaldia hockey
-pistan egindako bazkari batekin bukatu zen.



Goi-mailako kultur ikuskizuna Alazne Lópezen omenez antolatutako ekitaldi hunkigarrian

Karlos Rodríguez

2015ean Alemanian hil zen dantzari zorrotza-
rrak bere auzokideen omenaldia jaso zuen
maiatzaren 27an ospatu zen ekitaldi hunki-
garrian. Kiroldegiko hockey-pistara bertaratu
ziren 650 pertsonak gozatu ahal izan zuten
gure auzoan sekula ikusi ez den goi-maila-

ko kultur ikuskizunaz, zeinean bertsolaritza,
musika eta dantza mota ezberdinak tartekatu
ziren. Arrakasta ikusita, oroimenezko ekital-
diak hurrengo urteetan errepikatzeko asmoa
azaldu da, eta dagoeneko gurasoak eta lagu-
nak, Auzo Elkartearen laguntzarekin, lanean
hasi dira horretan.



**FARMAKOTEGIA
SUSANA
URRITIKOETXEA**

Astillero 1. 48013. Zorrotza
Tlfn. 94 441 61 46



*Etxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak
Itsaski-haztegi propioa
Eguneko menua eta menu bitzartua*

Clara Campoamor, 2
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30
www.mesonluna.es

Urte askotako aldarrikapenen ostean, frontoia estali eta eraberritu dute



Zorrotz Morrotz

Frontoia eraberritzeko eta estalki bat jartzeko obrak bukatu dituzte. Frontoiko estalita-ko eremuan, pilota partiduez gain, auzoko elkarteek kultur eta merkataritza arloko ekitaldiak ere egin ahal izango dituzte. Frontoia-

ren estalki nagusia ez ezik, alboan atxikitako horma eta kioskoa eraberritzeko obrak eta pilotalekuari 286 metro karratuko azalera duten atxikituta lokalak eraberritu eta handitu ere egin dituzte, auzoko bizitza soziokulturala hedatzeko baliabide bat irabaziz. Estalki nagusia frontoiaren behealdean babesteko da, eta markesina osagarriak, pilota ez diren beste jarduera batzuk egiten direnean bildutako jendea babesteko du. Lanak urrian hasi zituzten eta milioi bat euro kostatu dira.

Taldeon Koordinakundeak komunikatu batean auzoan estaltzearen alde egindako borroka luzea gogoratu du: “bete gabeko promesak eta galdutako aukera askoren ostean, auzoaren ametsik kuttunetarikoa bat bete da”, eta horregatik, “guztiona den” frontoi berria zain-itzeko eta zainduarazteko deia egin du.



FEVE geltokiaren lurperatzea aldarrikatu zuten auzokide batzuek inaugurazio ekitaldian

Auzokide talde batek Juan Maria Aburto alkatea eta Udaleko beste ordezkariaren presentzia baliatu zuten FEVE geltokiaren lurperatzea aldarrikatzeko. Hedabideentzat adierazpenak bukatu ondoren, bildutako auzokideengana hurbildu zen alkatea eta eztabaidan aritu zen Auzo Elkarteak hainbat kiderekin. Elkarriketaren ondoren, Elkarrearen bozeramaile batek “alkateak duen *nirekiko edota nire aurkako jarreraren* aurrean, instituzioetan ez ezik, kalean ere borrokan jarraitzeko” apustu irmoa azaldu zuen. “Lortu dugun guztia mobilizazioaren bidez lortu baita” azpimarratu zuen.

77 parte hartzaile Zorrotzako XXI. Ipuin lehiaketan

Zorrotz Morrotz

Zorrotzako Euskal Txokoak urtero antolatzen duen ipuin lehiaketaren sariak banatu berri dira San Juan bezperako jaian. Bere parte-hartzea eskertzen zuen opari bana jasota zuten jada aurretik parte hartzaileek, baina horrez gain, lehiaketan aritutako idazle gazteen lan nabarmenenak saritu ditu epaimahaia. Datoren urtean zuen ipuinak espero ditugu berriro eta mila esker eta zorionak parte hartu duzuen guztioi! Hauek izan dira sarituak!

12 urtetik behera:

- 1. saria: Joar Alonso Medina. (Sopuertaabenturarako sarrerak).
- 2. saria: Nerea Matilla Delgado. (“Matraka” mahai-jolasa).


DBH eta batxillergoko ikasleak:

- 1. saria: Alexandra Sanado Mangas. (100 €ko bonoa ELKAR dendetan gastatzeko).
- 2. saria: Iván Gómez González. (“Auskalo” mahai-jolasa).



Fray Juan kalea

Kale hau Zorrotza-Kastrexana eta Montevideo kaleak elkartzen diren lekuen (rotonda) hasten da eta Burtzeñako zubirarte luzatzen da. Kale hau N634 (Irun-Compostela) zatie izanda trafikoa handia jaso zeban autobidea egin arte, baita portukoa ere. Orain autobus asko (ezkerraldekoak) igarotzen diren lez lehenago Santurtzikotik tranbia (15) joaten zan. Mekanika enpresa handia zegoen (Omega) eta FEVE trenaren portura joateko (kargana) goitik eta beheetik (tunela) pasatzen zan. Omegaren nagusien txaleta parean txisatoki bitxie zegoen. Beheko partean ezkerraldean Bilboko hiltegia zegoen eta eskualdean aberen azoka.



FEVEko bagoiak porturako bidean Fray Juan kalea zeharkatzen



Fray Juan kaleko txisatokia



Talleres Omega-ko ikuspegi orokorra



**ZORROTZA
HAZI
ARAZIA**



ZORROTZA BATZOKIA

Erreserbetarako telefonoa: 94 465 46 15
(bazkariak, afariak, urtebetetzeak, ospakizunak...)



“ Bizitzako unerik zoriontsuenak hockey pistan edo harmailan bizi izan ditut ”



RODRIGO FERNÁNDEZ

Jaioterria: Laguna de Duero (Valladolid)

Noiztik: 2016ko irailetik

Adina: 18 urte

Lanbidea: Ikaslea eta hockey jokalaria

Pasa den irailean Valladolideko Laguna de Duero herritik etorri zen Rodrigo auzoko Metropolitano Hockey Club-ak fitxatuta. 2016ko Munduko Txapelketan 4. saria lortu eta gero gure auzora heldu da eta Euskal Herrian geratzea gustatuko litzaioke.

Naraoa Peña eta Zuriñe Vila

Noiz eta zergatik erabaki zenuen Zorrotzara etortzea?

2016ko irailean etorri nintzen nire kirolari ibilbidean esperientzia berri baten bila. Metropolitano Hockey Club-ean jokatzeko aukera eman zidaten eta kontuan izanda hemengo pista hockey pistarik hoberenatarikoa dela ez nuen pentsatu eta Zorrotzara etortzea erabaki nuen. Gainera, talde berri batean jokatzeko etortzeko erabakia hartzera bultzatu ninduen.

Bakarrik etorri zinen edo zure familiarekin?

Bakarrik etorri nintzen. Familia sarritan etorri da bisitan baina pisu partekatu batean bizi naizenez ezin izan dira denboraldi luze baterako geratu. Taldeko beste bi jokalarirekin bizi naiz, txekiar eta letoniar banarekin.

Zure herria faltan duzu? Askotan bueltatzen zara?

Jakina baietz. Han dago familia, beraz, faltan izatea normala dela uste dut. Familiaz gain, nire betiko hockey taldea ere izugarri sumatzen dut faltan, 9 urte nituenetik talde berean jokatu baitut; kirol talde bat baino askoz gehiago da niretzat. Hori dela eta, bueltatzen naizen bakoitzean partidu guztiak ikustera noa. Hilabeteen behin herrira bueltatzen naiz. Denboraldia hasi zenetik denbora gutxiago daukat eta zailagoa egiten zait asteburu libre bat topatzea.

Egunerokotasunean zer egiten duzu?

Goizeko 8etan altxatzen naiz, Cross-Fit egitera noa eta etxeko lanak egiten ditut. Jan eta gero, siestatxo bat egiten dut eta arratsaldez mutil batzuk entrenatu ostean nire entrenamendua egiten dut.

Zaila egin zaizu gure bizimodura moldatzea?

Taldean oso ondo onartu naute, hasieratik oso gustura sentitu naiz. Baina, pistatik kanpo zailagoa egin zait bertoko jendearekin harremanak egitea nire ordutegiarengatik. Goizez gimnasia noa, arratsaldean entrena-menduak, asteburuetan partidak... Azkenean nekeza egiten zait hockey mundutik kanpo dagoen jendearekin erlazioztatzea.

Zer da hemen gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxien?

Hockey pista eta etxearen arteko distantzia laburra da gehien gustatzen zaidana, jeje. Horrez gain, auzoa oro har gustukoa dut: itsadarraren ertzean dagoen ibilbidea asko gustatzen zait, Bilbo erdialdearekin daukan garraio komunikazioa... Alderdi negatiboak dagokienez ez daukat aipatzekorik. Oso gustura sentitzen naiz eta asko gustatzen zait Zorrotza auzoa.

Zein izan da zure ibilbidea hockey munduan?

Herriko taldean hasi nintzen jokalaria. Atezain hasi eta 3 hilabetera, Valladolideko talde batek fitxatu ninduen. 2010. urtean nire lehenengo txapelketa autonomikoa irabazi nuen Gaztela eta Leonen. Horren ondorioz Espainiako txapelketara joan nintzen eta lehenengo saria eskuratu nuen. 2016. urtean Espainiako Selektzioak Munduko Txapelketara joateko aukera eman zidan eta laugarren postua lortu nuen sub-18 junior txapelketan. Orain Bartzelonan izango den Spartan txapelketara joateko entrenatzen nabil, Munduko Txapelketara berriro joatea lortzeko asmoz.



Zure etorkizuna kirolari lotuta ikusten duzu?

9 urte ditudanetik nire bizitza kirol honen arabera antolatuta dago. Egin izan ditudan gauza edo ekintza guztiak beti egon dira baldintzatuta entrenamendu eta partiduen ordutegien arabera. Beraz, etorkizunean kirolari lotuta egoten jarraitzea espero dut, ez dakit hockey munduan izango den beti edo cross-fit begirale moduan, baina kirola beti izango da nire bizimodua.

Zuretzat zer suposatzen du hockey-ak?

Nire bizitzako momenturik zorientsuenak hockey pistan edo harmailan bizi izan ditut, beraz, hockey-ak niretzat dena suposatzen du. Pistan nire %100 ematen dut.

Valladolidera bueltatzeko asmoa daukazu, edo hemen gelditzea gustatuko litzaizuke?

Bidaiatzea asko gustatzen zait eta leku batetik bestera joatea oso aberasgarria dela uste dut. Baina, momentu honetan, Euskal Herrian geratzea gustatuko litzaidake. Oso gustura nago eta zorionsua naiz hemen.



- **Euskara maila hobetu!** Mejora tu nivel de euskara!
- **HABE titulazio ofizialak; EGA**
- **IKASGEL@ (autoikaskuntza)**
- **ON LINE**
- **BERBALAGUNA**

BECAS PARA TODAS/OS

Irailean eman izena! MATRÍCULATE EN SETIEMBRE



ZORROTZA AEK
Zalbidea 7 • 944 414 920 • zorrotza@aek.eus
www.aek.eus/blogak/bilbo

Denontzat zabalik dagoen eremu autogestionatu eta askea

Gazte eta ez hain gazteentzat kultur eta aisialdi zentru bat bihurtzeko asmoz okupatu zen Gaztetxea orain dela hamahiru urte. Auzoarentzat ate zabalik, hainbat kultur ekitaldi antolatu dira urte hauetan gaztetxe barruan.



Testua: Iratze Pérez
Argazkiak: Gaztetxea

2004ko maiatzaren 14an okupatu zuen Gazte Asanbladak Zorrotzako Gaztetxea, Zalbi-dea kaleko atzealdeko autopistapeko plazan. Eraikina hutsik zegoela jabetu ondoren, auzoarentzat eremu aske, autogestionatu eta gazte eta ez hain gazteentzat kultur eta aisialdi zentru bat bihurtzeko asmoz, sartzea eta okupatzea erabaki zuen Gazte Asanbladak. "Sartu eta berehala, lan asko geneukala jabetu ginen" gogoratu du Peio Mentxakak, Gaztetxearen asanbladako kideak. "Zerrategi bat zen eraikin hau eta albokoak (gaur egun euskaltegiko etxeen eremua), eta etxebizitzak eraiki zituztenean, etxe hau utzi zuten biltegi moduan, eta hor geratu zen hutsik etxebizitzak bukatzean".

Gazte dezente zegoen garai haietan asanbladan eta pozik azaldu ditu Peiok Gaztetxearen hastapenak: "Zarama guztia kentzeko lan asko egin behar izan genuen". Argi indarra generadoreen bidez lortzen zen hasieran. Ur korronterik lortzeko aukerarik ez dago eta ura izateko 800 litroko ur-andela batez baliatu ziren. Komunak egiterakoan hondakinak non bota arazoari aurre egin behar izan zioten eta "hobi septiko bat erosi behar izan genuen eta lurperatzeko zuloa eskuz egin!" Ez, ez da lan makala egin zena gaur egungo egoerara heldu arte. "Auzoko hainbat igeltsero edo iturginek, beraien laguntza eta orientazioa eskatu genuenean, zoroak ginela esaten ziguten: hainbeste lana gero hemendik kanporatuak izateko. Ba momentuz, hemen da Gaztetxea!" baieztatu du Peiok. Eta lan hori ez da buka-

tzen, konponketa lanetan ariko baitira uda honetan: tailatuan konponketa lanak hasi dira, zorua ere konpondu nahi dute, ate berri bat egin kalera zarata gutxiago ateratzeko asmoz...

Hamahiru urte bete dira aurtien gaztetxea 2004. urtean zabaldu zenetik. Lehenengo urte horretako auzoko jaietan eszenatokia jada eginda zegoen eta MCD taldeak eskainitako kontzertuak 300 pertsona inguru bildu zituen. Hortik aurrera kontzertu andana bizi izan dira eta maila goreneko talde anitz pasa dira oholitza honetatik: SA, Def con Dos, Ratos de Porao, Su ta gar, Doctor Deseo, Reincidentes, Oreka TX, Mikel Urdangarin, Anje Duhalde... Zerrenda handia da, baina "kontzertuak joan eta etorri egiten dira, eta hau ez zen kontzertuak egiteko okupatu, baizik eta jendeak erabiltzeko eta batzeko"

Eta hala da: kultur ekitaldi ugari antolatu eta egiten dira gaztetxean: adibidez, 2006. urteko jaietan grafiti erakustaldi baten barruan gaztetxe aurreko plaza margoztu zen asteburua nabarmendu du bereziki asanbladak. "Asteburu horretan egindako bazkarian 1500 pertsona bildu ziren. "Plazak xarma berezia du. Bizitza ematen dio Gaztetxeari, eta alderantziz", Peioren hitzetan.

Era berean, hitzaldiak, tailerrak (argazkilaritza eta musika) egin izan dira, eta auzoko hainbat taldek ere lokala erabili dute haien eginkizunetarako edota ekintzak antolatzeko, hala nola Ibai Arte edo Azahara taldeen entseguak, Jai Batzordearen bazkariak, Euskal Txokoako anto-



latutako antzerki edo bertso saioak... Izan ere, auzoan ez dago ekitaldi hauek egiteko Gaztetxea bezalako eremurik, eta asanbladaren hitzetan "Gaztetxearen funtsa, okupatu zen lehenengo egunetik, auzoarentzat izatea da eta auzotar guztiok erabiltzea denetarik egiteko.

Etorkizunerako, orain arte egindako ekintzen zerrenda handitzea nahi dutela diote asanbladako kideek, eta bertatik pasatzera eta proiektuan modu aktiboan parte hartzera animatzen dute auzotar oro, "guztion eta guztiontzat izan behar duen Gaztetxearen bidez, auzoaren bizitza eta aukera soziokulturean eragina izan nahi baitugu". Horretarako biderik errazena eta eraginkorrena hamabostero egiten eta irekiak diren asanbladetan parte hartzea da. "Nahi duenak ateak zabalik ditu edozein kultur ekitaldi, jaia, edo dena delakoa antolatzeko".

**EUSKAL
PRESO ETA
IHESLARIAK**



ETXERA

**GORA
HERRIA!**

★ *independentzia!*
SOZIALISMOA!



ASKABIDE
kultur elkartea
ZORROTZA

IBAI GARCIA: Zorrotza Multikirol Eskolaren kirol arduraduna.

IRAITZ ZULOAGA: Zorrotza Multikirol Eskolaren sortzaileetako bat

“Kirol formakuntzarako umeen garapenak lehentasuna dauka”



Zorrotza FCk bizi duen egoeraz kezkatuta klubean murgildu diren beste lagunekin batera euskara hutsez zango den Zorrotza Futbol Eskola eta Multikirol Eskola bultzatu ditu Iraitzek. Herrietarako, Zazpi Landan jokatu eta entrenatutako Ibai García entrenatzaile tituludunarekin kontaktatu zuten azken hau arduradun eta entrenatzaile izateko. Biekin proiektu honi buruz aritu gara.

Nola sortu zen Zorrotza Futbol Eskola sortzeko ideia?

Iraitz: Ba ideia gehienak sortzen diren beazala, ziur aski poteo baten bitartean, kar, kar! Aspaldi egonak ginen Zorrotza Futbol Taldean jokaturako batzuk klubaren egoera zela eta tristezia berbetan. Gero eta okerrago, harrobirik ez, aurtun jubenil talderik jada ez dagoela uste dut... Egoera hori aldatzeko zer edo zer egin behar zelakoan geunden.

Futbolaz gain, proiektu honek multikirola izango du. Zein kirol konkretuki?

Ibai: Gure asmoa eskuratzeko erraza edo merkea den materiala behar dutenak lantzea da: adibidez atletismoa, saskibaloia... Eskoletan aurkeztu dugu proiektua eta zabalik dago haiek proposaturako edozein kirolari. Egokitu behar gara Zorrotza Futbol Eskolak jarriko duen eta ikastetxeek jada duten materialari.

Non garatuko da proiektua? Edonor apunta daiteke? Adin tartearik egongo dira?

Ibai: Bi aldetan banatu dugu proiektua: alde batetik eskoletan egingo dena, 6 eta 8 bitarteko neska zein mutilentzat, baina izan dugun harrera ona aintzat hartuta, adin muga apurtxo bat handitu behar izan dugu. Bestetik, Zorrotza Futbol Eskolan, futbol 7ko benjaminak izango dira, 8 urtetik 10 urtera. Zazpi Landa eta Fray Juan ikastetxeetan aurkeztu dugu proiektua, esan bezala harrera oso ona jasota, eta Burtzeñako hainbat eskoletan ere aurkeztu dugu.

Zenbat ume daude jada izena emanda?

Ibai: Eskoletan 25 neska-mutil inguru jada eta futbolerako 14 ume. Zorritarrez, azken honetan, momentuz ez da neska bakar bat ere apuntatu.

Iraitz: Futbolerako talde bat eratuta dago jada. Posible balitz, bigarren bat sortzea nahiko genuke.

Futbol talde honek lehiaketetan parte hartuko du?

Ibai: Multikirolan izena emandakoak ez dira inolako lehiaketetan arituko. Guk antolatutako topaketetan beste ikastetxeekin soilik, hilean behin adibidez... Haien kontra jokatze



“ Zazpi Landa, Fray Juan eta Burtzeñako ikastetxeetan aurkeztu dugu multikirola proiektua eta oso erantzun ona jaso dugu ”

aukera izan dezaten eta auzoko umeen arteko harremanak sendotzeko. Futboleantordea, lehiaketetan arituko dira, bai. Baina gure helburu nagusia ez da lehiaketetan aritzea eta irabaztea. Helburuak beste batzuk dira.

Kirolari bat hezterakoan zeintzuk dira helburu horiek beraz?

Ibai: Proiektuaren lehenengo baldintza klaseak euskara hutsean izango direla da. Bestetik, formakuntzarako umeen garapena aurretik jarri behar delakoan gaude, kide eta aurkariekiko errespetua gauza guztien gainetik, kirol desberdinetan hezte, ikastea...



“ Zorrotza Futbol Klubaren egoera latzari buelta eman nahi diogu, eta bizirauteko harrobia landu behar du ”

Proiektu honetan parte hartuko duzuenok boluntario arituko zarete?

Ibai: Entrenatzaile guztiak entrenatzaile tituluak izango dira, eta gurasoek jarritako dirua horien “soldatan” gastatuko da gehien bat. Nire kasuan, koordinatzaile izango naizenez, ez dakit soldata deitzerik dagoen, baina diru-sarrera izango dut honi esker. Baita entrenatzaileek ere. Proiektuaren sortzaileak aldiz, musutruk murgildu dira honetan.

Zuen beste eginkizunekin uztartzeko zaila izango da?

Ibai: Gustuko eginkizuna izanda, ez dut uste zaila izango denik.

Biak jokalaria ohiak eta futbolaren munduan ibili zarete, ezta? Ibai, entrenatzen eskarmentua duzu?

Iraitz: Biak jokalaria ohiak gara. Proiektuan murgilduta gauden gehienok Zorrotza Fut-

bol Taldearekin zerikusia dugu. Edo jokalaria ohiak, edo gaur egungo jokalariaik edo gaur egungo zuzendaritzakoak.

Ibai: Nik ez dut Zorrotza Futbol Taldean jokatu, baina bai Zazpi Landan. Zazpi Landa futbol taldean ere entrenatzeko aukera eman zidaten eta lau urte eman ditut hor umeak entrenatzen. Aurten entrenetzeari utzi nion entrenatzaile titulua ateratzeko eta dena batera egitea ezinezkoa zelako. Zorrotzako Futbol Taldeko jendea bertaratu zen nigan proiektu honen nondik norakoak azaltzeko, hezkuntzan eta formakuntzan oinarrituta. Horrela ulertzen dut nik futbol-hezkuntza eta horregatik animatu nintzen proiektuan murgiltzeko.

Adin txikietan beste futbol klub bat badaugo auzoan. Zuen ustez bi klubak elikatzeko ume nahikoa al dago auzoan?

Iraitz: Nik uste dut baietz, baina honen harira gauza bat azpimarratu nahi dut: proiektu hau sortzerakoan, (ez naiz zuzendaritzaz ari, ez batz ez besteaz, baizik eta proiektu hau bultzatzeko bildu ginen hiruzpalau pertsonen), gure ustez, auzoak duen aukerarik onena bi taldeak fusioatzea dela. Nahiz eta bi taldeak elikatzeko ume nahikoa egon, ez

genion zentzu handirik ikusten Zorrotza bezalako auzo txiki batean bi futbol talde egoteari. Badirudi nahiko zaila izan daitekeela haien artean izandako istorio batzuegatik, beraz, eta zoritxarrez, aukera hori baztertu ondoren, Zorrotza FC taldeak bizirauteko harrobia ere landu behar zuela pentsatu genuen.

Etorkizunean fusio hori posible ikusten al duzue?

Iraitz: Ez dakit. Nire ustez gertatu beharko luke. Ez dago gure esku, gu ez baikaude ez zuzendaritza batean ez bestean, baina uste dut auzoak berak ere eskatzen duela taldeak fusionatzea eta klub bakarra egitea, sendoa goa izateko asmoz. Umeen aldetik, estruktura aldetik, ekonomikoki...

Nola ikusten duzue zuek Zorrotza Futbol Klubaren egoera? Ehun urtetik gorako taldea eta 3. mailan egondako kluba bai, baina gaur egun erregionaleko 3. mailan?

Iraitz: Jende askok azken urteetako gestioa kritikatu du. Gu ez gara horretan sartuko, ez baitakigu ondo edo gaizki egin den. Dakiguna da taldea erregionaleko 3. mailan dagoela eta harrobirik ez duela, eta buelta eman nahi diogula egoera horri. Ez da trapu zikinak ateratzeko momentua eta hor egon direnak ahalik eta borondaterik onena jarri dutela uste dut. Tristeia da, bai, hainbeste urtetako kluba horrelako egoeran ikustea. Egia da oso zaila izango litzatekeela bere garaian egondako hirugarren maila horri eustea gaur egun, baina bai uste dut gorago egon beharko lukeela.

LABURREAN

Zein da futboleko bizi izan duzuen unerik pozgarriena eta latzena?

Iraitz: Ez dakit aukeratzen, baina jokatu izan dudanean oroitzen onak izan ditut, harremanak, lagunak egin ditut... Eta latzena, Zorrotza hasi nintzen urtea, Zorrotza 3. mailatik jaitsi zen urtea izan zen. Oso txikia nintzen, baina La Base zelaia beteta eta jendearen atsekabea gogoratzen dut.

Ibai: Nire oroitzen goxoenak jokatzeko baino entrenatzen izan ditut. Eta latzena lotailu-haustura izan nuenean izan zen. Sei hilabete jokatu gabe!

Zer da futbolaz gehien gustatzen zaizuen?

Iraitz: Kirola dela eta balore batzuk transmititzen direla. Futbolzalea naiz, baina gaur egungo futbolari balore postiboak baino, txarrak ikusten dizkiot, eta askotan horiek umeei ere transmititzen dizkiegu.

Ibai: Ni futbolzale amorratua naiz, eta eragiten duen pasioa gustukoa dut, baina gaur egun negozio hutsa bilakatu da. Umeen inguruan sortzen diren gauza batzuk ez ditut gustuko. Gurasoek Messi bat nahi dute etxean.

Gustuko duzuen entrenatzaile bat.

Iraitz: Ezagutu gabe, baina transmititu dituen baloreengatik, Marcelo Bielsa esango nuke. Futbol-negozian sartuta badago ere, dituen baloreak bukaeraino eramaten dituela uste dut. Ibai: Ados Iraitzekin.



**Taberna
MITOR**
José eta Juan Carlos
Soka kalea, 11. Zorrotza
Tel. 94 482 07 96



ZORROTZA F.C.
kirolarekin,
auzoarekin eta
euskararen alde!




**ROCKET
TAVERN**
Plater konbinatuak,
hanburgesak,
oilasko erreak...
FRAI JUAN, 8 · Tel 94 655 68 98

**TABERNA
INDARRA**



**ATHLETIC CLUB
BILBAO**
Abaro estrata, 10

“Trainera”



Osagaiak:

Hegaluzea, maionesa, piper gorri eta berdea, antxoa, pipermina, baratxuria, otarrainxka eta ogia

Hegaluze apur bat maionesarekin nahastu. Piper gorri eta berdearekin estaliko dugu nahasketa. Antxoa eta pipermin bana jarri erdian eta otarrainxka batekin atondu. Guztia luzanga moztutako ogi xerra baten gainean jarriko dugu. Horregatik “trainera” izena.

Zailtasun maila Ertaina

Prezioa: 2 €

TXINBO KAFETEGIA



Duela bost urte zabaldu zituen atek Txinbo kafetegiak. Egunero zabalik goizeko 7etatik gaueko 23etara. Kafetan espezialistak dira eta pintxo, kopa eta ardo ugari topa dezakezu bertan. Terraza estalia oso zabala eta pantaila handia futbol partida guztiak ikusteko. Giro eta musika ona egunero.

Abaro estrata, 10

48013, Zorrotza

Telefonoa: 94 608 85 74



BAR VENECIA

Espezialitateak:

Kafea, tortilla, tortilla beteak eta bestelako pintxoak

Abaro estrata 10

AUPA ATHLETIC



Pintxo askotarikoak, hamburgesak eta sandwichak
Bazkariak eta afariak (erreserbatu behar da)
Ardo onak, konbinatu gozoak, Futbol, musika...

Fray Juan, 10 - Zorrotza - 48013 Bilbao

cafe txinbo

Espezialitateak:

Tapak eta errazioak
Kanapeak




Abaro estrata, 10
Tel. 94 608 85 74



Nola heldu naiz ni honaino

Kattalin Miner. Elkar. 2017. 128 orrialde



Doinua:

Lurrarenpean sar nindaiteke

ke-arrastoek eta su garrek

ilundu dute hiria

ikusten ote da Gran Viatik

ontziolako garabia?

heriotzaren usain sarkorra

hondamenaren habia

ta bitartean agintarien

hipokresia garbia

berez saihestu zitekeen horri

deitzen diote tragedia

Asier Urkiza



Huts: Mamuak

(Gaua produkzioak) 2017



XVIII. Igartza Sariaren irabazlea izan ondoren bere lehen liburua du Minerrek. Broma serioen artean, gaur eguneko aktualitatearen erretratuaren deskribapen zehatz bat egiten du eleberrian. Jezabel ize-neko emakume gaztearen bizitzaren narrazioa daukagu, lehenengo eta bigarren pertsonak nahastuz. Arrakastaren laukitxo guztiak beteak ditu Jezabelek, argi du zer nahi duen bizitzan eta zirt-zart hartu ohi ditu erabakiak. Halako batean, ordea, txikieria batekin paralizaturik geratuko da. Emakume gazte baten nora eza darabil Kattalin Minerrek gure gizar-teko hainbat gai giltzarri jorratzeko: familia eta bikote ereduak, heteroaraua, harreman batean bilatzen duguna... Nortasunez beteriko lehenengo eleberrri bat, irakurlearen gogoia astindu eta zer pentsatua emango diona.

"Mamuak" lehenengo diska aurkeztu berri du Trapa-gako Huts taldeak. 7 abestiz osaturiko lana grabatu dute Aitor Abio (Pl.L.T., Matxura, Revolta Permanent) ekoizle izan dutelarik. Nahasketa eta mastering prozesuan, ordea, Asier Zubelzu eta Mikel Becerra aritu dira. Hirukote honen lehenengo diska zabaltzen duen abestia "Osoa" da, hasiera indartsua eta melodikoa, geroago aurkituko dugunaren ispilu bikaina

(Youtuben ikus dezakezue bideoklipa). Jarraian, indartsu aurkeztzen da "Eten" metal riff astunago batekin. Hurrengo bi abestietan prime-rako lankidetzak topatuko ditu entzuleak. Alde batetik, "Meteoroak (Ironiak)" abestia [sholl] taldeko Gorka ederki aritzen da alderdi melodikoan eta "Mamuak" kantan Revolta Permanentekoek rap kutsuko ahotsak eta kitarra konponketak sartu dituzte. Baxuaren melodia ilun eta bateria introak "Entzun" abestia datorrela ohartarazten dute, kanta itsaskorra, single perfektua ezbaierik gabe. Bukatzeko, "Eta orain.. zer?" ustekabeko interludio instrumentalak bide ematen dio "Leheritu" azken pieza berezi eta pisutsuari. Tranparik gabeko diska gordin, indartsu eta melodikoa.



ARIN GRAF, S.L.

INPRENTA

Zalbidea estrata, 13-2.
48013 ZORROTZA - Bilbo
Tel/Fax: 94 441 38 23
info@aringraf.com

AUTO ESKOLA

KAIKU



Liderra Ezkerraldean

Zorrotza Kastrexana, 1
Tlfn: 94 427 88 10

CAFÉ LAS NAVAS

Pintxo gozoak egunero

Zorrotza Kastrexana errepidea 4

Zure iritzia jakin nahi dugu. Bidaliguzu zure artikulua zmorrotz@gmail.com helbide elektronikora gaiaren laukian "iritzia" jarrita. Eskerrik asko!



Sutea, hipokrisia eta elkarbizitza

Sutea

La Landako sekulako ezbeharrak erabat bigundu zigun bihotza. Lau auzokide hil egin ziren sutean. Hasieran, atsekabea eta goibeldura; hildakoak bikotekide gazteak eta haien seme-alabak izan ziren: Rocío, Joaquín, Jeny eta César. Handik egun gutxira, ospitalean zendu zen César ere. Gainera, hiltzeko era guztiz krudela izan zen.

Orain dela sei hilabete beste istripu oso larria jaso genuen auzoan. Gumersinda eta Marcelina FEVEko tren pasabidean hil ziren. Zazpiak auzokideak ziren; zazpiak meskabuz hil ziren.

Hipokrisia

Maiatzaren azken asteburuan zehar, tristura. Baina gero, poliki-poliki, haserrea plazaratu zen. Auzo mugimenduak ozenki esan genuen: "ikusita zegoen ezbeharrak gertatuko zela, iragarritako heriotzen kronika da". Eta horra hor Bilboko alkateak adierazi zuena: "hipokrisi sozial eta politikotzat" jo du esatea aurreikus zitekeela ezbeharren bat gertatzea.

Zorrotzako Auzo Elkarteari itxurazaleak gara leporatzea. Guri, berrogei urte daramatzagunoi, udaletxean egoera salatu dugunoi irtenbidea eskatzeko. Guri, eremu degradatua dela, hala urbanismo nola gizarte arloan salatu dugunoi...

Su hartu zuen etxea 1920an eraiki zen; egurrezkoa zen eta birgaikuntzarik ez du izan. Are gehiago, etxebizitza horrek ez zituen baldintza osasungarriak bizitzeko. Antzeko egoeran daude La Landako etxebizitza gehienak. Eta La Landako egoera sobera ezagutu arren (Udalak argitaratzen duen Bilbao egunkarian, 1992. urtean, oso argi azaltzen zen esparru honen ezaugarria: "Gune honen tankerak ghetto klasiko bihurtzen du") Bilboko Udalak ez du ezer egin egoera hori zuzentzeko edota bideratzeko urte hauetan guztietan.

Elkarbizitza

Gune bat baztertua denean, marjinal bilakatu da. Marjinal izatetik ghetto izatera arin burutzen da (pobrezia, giza bazterketa, isolatzea...). Ezaugarri hauek ez dute errazten bizia. Horrexegatik auzoan egin zen manifestazioaren deialdian agertzen zen esaldi hau: "bizi baldintza duinek elkarbizitza ona erraztuko dute".

Manifestazioarekin jarraituz, jakin badakit oso auzokide gutxiak parte hartu zutela. Horrez gain, oso kritiko agertu ziren deialdiarakin. Arrazoiak... azken urteetan auzoan pairatzen diren elkarbizitza arazoak, Landako kide batzuen eskutik.

Kritikatu, salatu, pairatzea... auzokideok besterik ez dugu. Konpontzea Bilboko udalari dagokio. Aburto jauna haserre egin da, baina ez du ahaztu behar bere alderdiak, EAJ-PNV, 1979. urtetik agintzen duela Bilboko udaletxean.



Diseinu grafiko:
irudi korporatiboa • web • komunikazioa ...

Kartelak, Aldizkariak, Katalogoak, Folletoak,
Kamisetak, Opari pertsonalatuak...

www.amcdiseinua.net

Aurrekontuak eta info +: Tel. 657 732 934 • aitor@amcdiseinua.net

Txetxu Rojo

EUSKARAREN ERABILERA EZ SEXISTA



Jaioberriaren sexua zein izango den emakume haurdunei egiten zaien galderarik ohikoena da. Zergatia? Oraindik ez dugulako generoan oinarrituriko desberdintasunik gabeko mundua imajinatzen. Generoak bakoitzaren jarrerak eta posibilitateak bideratzen ditu neska edo mutikoa izanda, eta hori naturaltzat hartzen dugu, nahiz eta eraikuntza soziala izan. Hizkuntzekin, berdin gertatzen da. Hainbat hizkuntzak, pertsonen sexua desberdintzeko markak erabiltzen ditu, nahiz eta euskararen kasua ez izan. Gazteleraren eraginez, euskaldunok

batzuetan (edo askotan?) genero marka erabiltzen dugu, hau eduki behar ez lukeen hitzetan.

Esperanto hizkuntza L. L. Zamenhoff-ek XIX. mendearen bukaeran asmatu zuen "Lingvo Internacia" bihurtzeko asmoarekin, internazionalak diren frantsesak eta ingelesak sustrai kolonialista sendoak dituztelako. Printzipioz, hizkuntza bat guztiz ulargarria izateko oinarritzko elementuak erabiltzen ditu.

Benetan beharrezkoa da genero marka hizkuntzetan?

SALAKETA ARGAZKIA



Pasealeku arriskutsua

Kastrexanara doan ibilbideko tarte honek ez du baldosarik, estuagoa eta arriskutsuagoa ere bada, kanpoko baranda aurrekoa baino baxuagoa baita. Erakunde arduradunak behar bezala konpondu beharko lukeela uste dugu.



VIA gráfica

viagraficazorrotza@gmail.com

Disenúa

Restaurante
Arsenio

Tfno. 94 497 10 03
Hermógenes Rojo, 6
48013 BILBAO

Pintxo askotarikoak
Menu bereziak (enkarpetat)
Eguneko menua



Jai herrikoiak vs. BBK Live, Heineken, Last Tour... #GoraJaiHerrikoiak

Asko dira Bilboko Udalak Jai Batzordeoi jartzen dizkigun trabak eta arazoak auzoetako jaiak prestatzeko orduan. Hori dela eta, ezin dugu ulertu Bilboko Udalaren jarrera Heineken edo BBK bezalako enpresa pribatu handiek edozein jaialdi antolatzen duten bakoitzean. Hauei, oztopoak jarri ordez, alfronbra gorria jarri, eskatzen duten guztia eman eta Udalak berak ezarritako arauen gainetik pasatzen uzten die.

Aspaldi konturatu ginen Bilboko Udalak Jai Batzordeak indargabetu eta desagerrarazi nahi dituela, bultzatu nahi duen jai-eredua eta gurea ez baitatuz bat. Izan ere, haien xedea euren patrikak betetzea da, ez au-

zotarrok auzotarrantzat jai parte-hartzaileak sustatzea.

Auzoetako Jai Batzordeek 1500na euroko diru-laguntza jasotzen dute urte osorako, eta diru-laguntza horrekin hurrengo ekimen guztiak antolatu behar ditugu: auzoko jaiak, Olentzero, Inauteriak, San Juanak eta urtean zehar egiten diren beste hainbat ospakizun. BBK Live jaialdiak, berriz, 1,4 milioi euroko diru-laguntza jasotzen du lau eguneko egitaraua osatzeko.

Horregatik, guztiagatik, Auzotarrok Bilboko Jai Batzordeen Koordinakundeak Bilboko Udaleko jai zinegotzia den Itziar Urtaşuni hurrengo hau eskatu nahi dio: azal diezagula zergatik auzoetako Jai Batzordeek auzokideen eta komertzio txikien karitateaz bizi behar dugun, multinazionalen diru publikoarekin, hau da, gu guztion diruarekin, haien patrikak betetzen dituzten bitartean.

Gora Bilboko jai herrikoiak!

Auzotarrok

Koloretako auzoan, koloretako uda!

Konturatu gabe uda heldu zaigu berriro... eta gu, buru-belarri aritu gara haur eta gazteen oporretarako jarduerak antolatzen.

Azken urteetan gertatu den moduan, ekainaren 26an hasita eta 3 astez, Hiriko Udalekuak antolatu ditugu. Auzoko institutuan, 3 urtetik gorako txikitxoek eta 14 urte arteko nerabeek parte hartuko dute. Gaia, auzoari udan koloreari ematen jarraitzea eta bizitza osasungarria garatzeko ildoak ezagutzea izango da. Kiroldegian kirol mota desberdinak praktikatuko ditugu, igerilekura joango gara, mendi martxak, inguruko parkeetara txangoak, esku lanak, sukaldaritza osasungarria.... Denetarik gure txiki eta gazteek opor egun berezi batzuk izan ditzaten.

Hiriko Udalekuak bukatuta, uztailaren 15ean Orikain Udalekuaren momentua helduko da. 10 egunez, Nafarroako Orikain herrixkoko Ezkaba kanpinean benetako esperimentzia aberasgarria bizi izango dute haur eta gazteek. Mila ekintza eta jolasez aparte, Iruñea ezagutzeko eta Done Jakue bideko 2 etapa egiteko aukera ere izango dute.

Aisialdi hezitailerako bi proposamen hauek 164 haur eta gazteek parte hartuko dute. Ilusio eta erantzukizun handiz hartzen dugu hainbeste familiek bere seme-alabak gure proiekturen batean apuntatzeko izan duten konfiantza. Mota honetako ekintzen atzean lan handia dago, beti abiapuntu eta helbu-



ru berberekin burutzen duguna; auzotik eta auzorako. Gure haur eta gazteek opor aukera hezitzaile, sortzaile, integratzaile, diberti-garriak... izan ditzaten.

Goazen ba, udari hasiera ematera! Hazi eta hezi gaitezen elkarrekin!



Iragar zaitez

ZM

ZORROTZ MORROTZ

aldizkarian!

Euskara sustatu
Zorrotzan!

zmorrotz@gmail.com



CaixaBank

Zeu zara izarra

Abaro estrata, 5

48013 Zorrotza (Bilbo)

Tel. 94 459 00 90

www.caixabank.es

Jai-Alai
kafetegia



Abaro estrata, 12
94 490 12 59



Alaitz

Ez dut uste hala izango denik. Gainera, irtenbidea guztion artean erabaki beharko genukeela uste dut, ez soilik Udalak.



Nuria

Betidanik entzunda daukat hori eta ez da ezer egin. Bertan pisuak ipintzea interesatzen zaien arte, ez dut uste ezer mugituko dutenik

Landa

Urtea bukatu aurretik konponbidea emango diola eremuari esan du Udalak. Arrazoizko epea dela uste duzu?

Iratze Pérez eta Ibai Barrios



Sonia

Horrela izatea espero dut, eta baita FEVE geltokiaren auzian inplikatu dadila Udalak. Dena den, beranduegi heltzen da. Askoz lehenago konponduta egon beharko lukeela uste dut eta askotan exijitu genuen.



Ekaitz eta Leire

Konponbidea emanda eta eginda egon beharko litzateke jada. Tamalez, zerbait larria gertatu den arte ez dute kontuan hartu



Arkaitz

Ez dut uste epe horretan egingo denik, Udalak Zorrotzako arazoak konpontzeko borondaterik ez duelako



Taramona

ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75
Telefona: 94 442 44 68

TAILERRAK ETA ZERBITZUAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 75
Telefona: 94 442 17 12

Regalos Omega

oparidenda

Frai Juan 19
Omega galeriak
Zorrotza
94 482 03 66

www.omegadetalles.com



Bilbon euskaraz



► www.bilbaoeuskaraz.eus



Bilbao

!Kasi miKasi!



0-18 urteko heziketa-ibilbide osoa,
ikastetxe publikoetan eta
Zorrotzatik irten gabe



CEIP ZAZPIKANDA-ZORROZGORTI ILHI

Pinadia etxaldea, 6. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 442 48 75 ☎ 94 442 48 75
✉ sietecampas@gmail.com



CEIP ZORROTZA-FRAY JUAN ILHI

Ikastalde etxaldea, 12. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 xxx xx xx ☎ 94 xxx xx xx
✉ xxx@hezkuntza.net
www.xxxxxxx.hezkuntza.net

I.e.s.
ZORROTZA
B.I.J.



San Miguel auzunea, 10.
48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 439 33 34 / 688 861 374
☎ 94 439 97 41
✉ 015078aa@hezkuntza.net

www.ieszorrotzabhi.hezkuntza.net



EUSKARAZ ERE, NATURALITASUNEZ

Harremanetan euskara naturaltasunez erabiltzea funtsezkoa da zerbitzu ona eman ahal izateko. Euskadiko Kutxan, zurekin euskaraz aritzea ez da aparteko aukera bat, gure nortasunaren eta gure izaeraren berezko ondorioa baizik. Izan ere, geurea zaintzea gustatzen zaigu, geure ezaugarri bereizgarriei eustea eta iraunarazten laguntzea, etorkizuna bermatzeko. Izan ere bada euskara bizitzeko beste modu bat... naturaltasunez.



LABORAL
kutxa